


Aretxagazeta

Gora liburuak!



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Taizéra
bisitaldia /8

GIZARTEA
Madrazoren
hitzaldia /9

LEINTZ GATZAGA
Ibon Lorenzo, lehenengo
jaioberria /10

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 20
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 21
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen..... 943 71 49 07
ARETXAGAZETA..... 943 79 86 21
Faxa..... 943 77 18 54
Basotxo..... 943 77 09 81
Euskaltegia..... 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea..... 943 71 18 62
Hezibide elkarte..... 934 79 31 32
Industrialdea..... 943 79 62 80
Instituitua..... 943 79 79 00
Kirol etxea..... 943 71 26 28
Kultura etxea..... 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola..... 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI..... 943 79 57 40
Liburutegia..... 943 71 18 62
Loramendi EE..... 943 77 09 70
Ludoteka..... 943 79 05 81
Mankomunitatea..... 943 79 30 90
Murruxiko ME..... 943 79 93 74
Musika Eskola..... 943 79 36 50
Osasun etxea..... 943 79 74 58
Otalora..... 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)..... 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola..... 943 77 03 77
Postetxea..... 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea..... 943 79 17 00
Saretxo..... 943 71 26 56
Taxi geltokia..... 943 79 22 33
Udal Bulegoak..... 943 71 18 62
Udaltzaingoa..... 943 71 18 63
Urats Gain..... 943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate..... 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak..... 112
Eskualde Ospitalea..... 943 03 53 00
Ertzaintza..... 943 79 71 99
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
Larrialdiaik..... 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)..... 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:00

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETAN
Domekak: 11:30 (Abadea baldin badago)

MENDIOLA
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

ARKARAZO
Domekak: 12:30 (Abadea baldin badago)

OHARRAK

BERTSO AFARIA LARRINON
Bihar, zapatua, bertso-afaria egingo dute Larrinoko San Kristobal elkarteak. Bertsoan Joxe Agirre eta Imanol Lazkano ariko dira. Afaria 20:30ean hasiko da.

SEPTICEMIA ETA STORBAIS GAZTETXEAN
Zapatuan, Aretxabaletako gaztetxean Septicemia eta Storbais taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean.

ESKULAN IKASTAROA ROSA DEL AGUILAREKIN
Eskulanak egiten ikasi edo, beste barik, artelan politik egin gura dituen oraintxe du aukera Rosa Del Aguilarekin. Apirilaren 23tik aurrera, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean emango du Rosak ikastaroa. Informazio gehiago jasotzeko, dei ezazu 943 77 09 70 telefonora.

XIBEROARI LAGUNTZEKO HITZALDIA
Aretxabaletako Zuberoa Garatzen Topaguneak hitzaldia antolatu du Zuberoako egoera larriaren berri emateko. Apirilaren 24an, eguaztena, 19:00etan izango da aurkezpen hitzaldia Murruxikoko lokalean. Etorkizunean ere deialdi gehiago egingo dituela jakinarazi du Topaguneak, auzolaneko ekintzetan parte hartzeko esaterako.

LORAMENDIRENAGENDA

'NESKA POLITAN' ANTZEZLANA
Gaur, hilak 19, gaueko hamar eta erdietan, udal-txe zaharrea antzerki ekitaldia egongo da ikusgai. Kasketa Kabaretera antzerki taldeak *Neska politan* antzezlan eskainiko du.

TXALAPARTA IKASTAROA
Maiatzean, Txalaparta ikastaroa egingo dute. Izena emateko epea maiatzaren 25ean amaituko da. Taldea mugatua izango da.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Copreci ondoko bidea egiteko lanak hasi zituzten

1993. urteko apirilaren erdialdean hasi zituzten Copreciko apartokalekuaren eta industrialde berriaren arteko bidea egiteko lanak. Egin beharreko bideak garai bateko trenbide zaharra estali zuen. Autoendako bidea egiteaz gain, inguru osoa ere urbanizatu zuen Udalak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Mari Elexpuru

"Jangarkia"

Jale txarra, mizkina.
-Jateko eskaxa danai esate jakok jangarkia, ume bat, esate baterako.



GORKA ORTEGA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Nagore Carballares
12an. Berandu bada ere, zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Josu Idigoras
18an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amagoia Lasagabaster
19an. Zorionak eta muxu bat Aretxagazetako kazetari marxosoenari.



ARETXABALETA
Endika de Tena
20an urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Elene Errasti
20an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Nekane Castellano
24an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat gurasoen eta anaiaren partetik.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra! Doan!
Durana, 11.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karreteka edo albuma dohanik !!

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Mobiliario

ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

IBARRA

estankoa

PRENTSA ETA IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA


ATREBENTZIA EZ PADA / Zer irakurten dozu? Liburutegire joateko ohiturarik badaukotzu?



MIKEL CORRES
Langillie



OSANE AYASTUY
Langillie



RAFA ROCHA
Langillie



NEKANE TEJEDOR
Langillie



ANTON VITORIA
Langillie



MARIA DEL MAR PASTOR
Langillie

Egunkarixek eta errebitak leiruteko ohiturie dauket. Liburuek leirutie be gustetan jat baiñe hartzeko ez naz liburutegire joaten, interesa dauketenien erosi egitten dittut.

Danetik irakurten dot, egunkarixek, biajien inguruko errebitak eta liburuek. Oñiñ *Memorias de una Geisha* leiruten nabil. Liburutegiko bazkidie naz baiñe ez naz aspaldixen joan.


Egunkarixek eta errebitak irakurten dittut, besteik ez. Deportiek gustetan jat, abentura zalie be banaz eta holako errebitak leiruten dittut. Liburutegire gazti-ae nitzenien joaten nitzen.

Ez dot ezer leiruten, noiz behinka errebitaren bat eskuartera etorten bajat horixe, baina bestela ezebez. Liburutegixe umiei lagunketan joan izen naze-lako ezauketan dot.

Egunkarixek irakurten dittut, Goienkarixe esate baterako. Liburuek be irakurri izen dittut, bai euskeraz, bai gazteleraz. Liburutegire ez naz joaten baiñe joaten hasi gura dot.

Egunkarixek irakurteko ohiturie dauket eta liburuek irakurtie be gustetan jat. Ez naz sekule egon Atxabaltako liburutegixen eta egi-xe esan ez dauket liburutegixetara joateko ohiturarik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK XIBEROAZ KEZKATUTA Zuberoako egoera larria da, eta Udalbiltzak, iaz, laguntzeko konpromisoa hartu zuen. Aretxabaletan ere, beste herri batzuen egoerarekin kezkatzen garelara erakutsiz, Zuberoa Garatzen Topagunea taldea sortu da. Datorren eguaztean aurkezpen hitzaldia egingo du eta aretxabaletar guztiak gonbidatu gura ditu parte har dezaten. Ez diezaiegun huts egin. /MA

ASTEKODATUA

3.212

LIBURU HARTU ZIREN IAZ MAILEGUAN LIBURUTEGIAN

Iaz, 3.212 liburu hartu zituzten maileguan Aretxabaleako liburutegian, etxera eroateko, 1.453 haurrek eta 1.759 helduek. Aldizkarien kasuan, ostera, 51 eroan zituzten eta CD-ROMak 12.

BESTE EKESANA

“ Nik behintzat ulertzen dut eta sentitzen dut beste batzuek jasaten duten sufrimendua. Batzuetan neure buruari zera galdetzen diot “

“ea Euskal Herriak hainbeste balio duen, hainbeste jende sufritzen egoteko”. Txarrena da familia baten sufrimendua erabiltzea, alderdi politikoen aldetik erabiltzen den bezala, bai ETAK hiltzen dituztenen familiakoen sufrimendua eta baita presoen senitartekoez bizi dutena ere. Biktimen sufrimendua ere alderdi batzuen interesen arabera erabiltzen da, baina gero alderdi hauek sufrimendu hori eragiten duen egoera konpontzeko ez dute ezer egiten, nik behintzat ez dut ikusten ezer egiten denik. Urteak pasa eta urteak etorri, berdin jarraitzen da.

PEDRO AZKARGORTA
‘Elkarri’ aldizkaria/02-03-27

HERRITARREN BERBAK / Arantxa Jaka



Solidaritatea: justiziaren aurpegi berria

Badirudi aldi honetan behartuta gaudela palestinar eta israeldarren arteko arazo eta egoera larriaz hitz egitera. Baina hau ukatu gabe, ezin ditugu ahaztu hain azkar gure bidetik ezkutatzen dituzten hainbeste gatazka eta oraindik ere, guri-guri daudenak: Afganistan, Uganda, Luanda, Sierra Leona, Sudan, Malawi, Kanbodia, Peru, Kolonbia, Nepal, Bosnia...

Penduluaren antzera, komunikabideek, interes ugari- en arabera, lortzen dute gure iritzia orain alde batera jartzea eta orain bestera. Dena azkar pasatzen da, egoerak une batetik bestera aldatzen dira, irudietan behintzat; baina errealitateak hor jarraitzen du. Hau horrela, esango nuke heriotzaren harlosa gainera datorkigula, ilunpe beldurgarri baten azpian gelditzen ari garela... Baina ez, zorionez. Elizak gauza asko hobetu beharko ditu, beste erakunde guztiek bezala, baina gogoratu nahi nituzke munduan zehar,

Norbaitek eraginik eta Elizaren izenean, beren bizia ematen ari diren misiolariak. Dena utzirik senide behartsuenengana bizia, itxaropena, duintasuna ernaraztera joan diren pertsonak.

Munduak errealitate hau hobeto ezagutzera emango balu, gizartea beste aurpegi baten

“Honek esnarazi behar du boterea daukatenean, batik bat, agintearen zentzu bakarra zerbitzua dela”

arrastoan abiatuko litzateke. Beraien lan isilak, ausartak gogorarazten digu injustiziaren aurrean ezin garela eserita gelditu. Beharrezkoa zaigula ez borrokarako, baizik eta besteari aurpegira patxadaz, maitasunez begiratzeko eta

egia bilatzeko prestatzea. Honek gogorarazten digu solidaritatea, justiziaren aurpegi berria dela. Eta guzti honek esnarazi behar du boterea daukatenean, batik bat, agintearen zentzu bakarra zerbitzua dela.

Hutsaren truke eta maitasunak eraginik besteari alde jartzea, elkarrizketarako beste bide bat da. Testigantza hauek ardura erreklamatzeko didate eta galdera hau sortarazten: Zein da eta non dago zure Jainkoa?

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4

KIROLAK / 5

HURRETIK / 7

Herriko liburutegia

Liburuaren Nazio- arteko Eguna dela-eta, herriko liburutegiari jarraipena egin diogu.

Alebinek, pilota txapelketa

Eskualdeko pilotari alebinak Iturrigorri frontoian batuko dira zapatutik aurrera.

Odilo Vázquez

Karate entrenatzailea da Odilo. Hainbat gaztetxori dakiena erakusten ahalegintzen da, kirol etxean.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



M. J. Aretxaga

Maitasun kontuak

Udaberriarekin batera maitasunak ere dir-dir egiten duela esaten da. Gure inguruan ere antzematen da hori. Ezteiak eta despedidak besterik ez dago. Zapatuan, ederra egin zioten bati. Goizean goizetik koadrila guztia moja jantzita eta bera gotzain, ibili ziren kalean gora eta behera. Tartean astotxo bat ere bazen, gizajoa. Arratsaldean, Arrasatera joan ziren oinez, gotzaina asto gainean zela. Domingo kanpainaren antza hartu nion. A ze piura!

Beste batzuk ere maitasun kontuetan ondo dabilta. Jakin dudanez, Koruetan Maitasunaren etxea izenez berrizendatu dute baserri bat. Ez di-zuet gehiago kontatutako, hurrengorako ere utzi beharko dut zer kontatu eta. Dena dela, joan zaitezte Korueta aldera eta Maitasunaren etxea non dagoen galdetu.

EUSKARA/ Oraingoz informazio orokorra agertuko da, poliki-poliki osatuz joateko

Udal euskaltegien inguruko berri guztiak aurkituko ditugu Interneten

MIRARI ALTUBE

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udal euskaltegien berri ematen duen webgunea sortu dute. Udal euskaltegien inguruko informazio orokorra ematen dute, eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal euskaltegien berri ere jasoko dute webgunean sartzen direnek.

Badirudi Interneten agertzen ez dena egon ere ez dagoela. Eta hori pentsatuta, udal euskaltegiek ere webgune bat jarri dute abian: www.udaleuskaltegiak.net.

INFORMAZIO OROKORRA

Sortu berri duten webguneak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udal euskaltegien inguruko informazio orokorra jasotzen du: euskaltegien kokapena, zer egiten den, publizitate kanpainako iragarkiak... "Helburua irudi korporatibo bat osatzea izan da, hiru probintzietan banatuta dauden berrogei euskaltegi irizpide didaktiko bera erabiltzen dugula erakustea, hain zuzen", esan du Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal euskaltegien zuzendari Karmele Agirregabiriak.

Poliki-poliki webguneko informazioa osatuz joango dira udal euskaltegiak arduradunak, eta euskara ikasleek ere izango dute euren lekutxo weborrietan, Karmelek dioen moduan: "Euskaltegi bakoitzak Santurtziko Udal Euskaltegiak egin duen antzeko webgunea egitea izango litzateke helburua, baina etorriko da hori



AMAGOIA LASAGABASTER

Aurrerantzean, ikasleek Interneten ere aurkituko dute euskaltegien informazioa.

ere". Santurtziko Udal Euskaltegiak herriko euskaltegiaren eta herriaren gaineko informazio guztia batzen du. Irakasleei eta ikasleei zuzendutako orri bana ere baditu webgune horrek.

EUSKARA IKASTEKO SAMURTASUNAK

Gaur egun, euskara ikasi gura dutenek geroago eta samurtasun gehiago dituzte. Ikaslearen profilerak eta egoerara moldatzen aha-

legintzen dira udal euskaltegiak, eta urtean barrena izaten diren ikastaroen gainera, Udako Ikastaroak eta Barnetegiak daude aukeran. Bestalde, irakasle eta ordutegi barik ikasi gura dutenendako ere badago autoikaskuntzarako multimedia sistema. Orain, webgune berri horrekin, www.udaleuskaltegiak.net, ez dago gero inolako aitzakiarik euskaraz berbetan ez ikasteko.

LABUR

Batzordea aldatu zuten Basotxo elkartearen eguean

Basotxo erretiratuen elkarteak, bi urtean behin egiten duen moduan, batzordea aldatu zuen eguean. Batzordekide berriak M^a Carmen Olañeta, M^a Asun Arkauz, German González-Martín, Antonio Villar eta Emiliano Altube dira.

Pilak jasotzeko ontzi bereziak jarri ditu Mankomunitateak

Pilak eta botoi-pilak jasotzeko edukiontzia bereziak jarri ditu Debagoieneko Mankomunitateak herrian. Marroi koloreko ontzi txikiak kalean egon beharrean komertzioetan egongo dira, bai eta udaletxeko atarretan ere. Lehen ere jasotzen ziren, baina sistema hobetu gura izan dute.

Kultura teknikari laguntzailea hasi da lanean dagoeneko

Astelehenean hasi zen lanean kultura teknikari laguntzailea Ana Díaz. Oñatiarra da Ana Díaz, eta Inma Miguel kultura teknikariari lagunduko dio, goizetan. Hemendik aurrera, gainera, makinatxo bat lan izango dute, gainean ditugu eta bai Oñati-zelai Eguna bai Euskararen Eguna ere.

Zubia oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE



Matikua jatetxea

Azata auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

ANA'S jantxidenda


Iparragirre 4.
Aretxabaleta

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Lezama BIDEO KLUBA

Zure gustoko zinema!

Santa Kurtz 24
ARETXABALETA
943 79 33 95

HEZKUNTZA/ Umeek liburu gutxiago hartu zituzten iaz maileguan, eta nagusiek, berriz, gehiago

Hamabost mila eta bostehun erabiltzaile izan zituen iaz Aretxabaletako liburutegiak

MIRARI ALTUBE

Apirilaren 23an ospatuko da Liburuaren Nazioarteko Eguna. Herritarrek zenbat irakurtzen duten jakitea ez da samurra. Samurragoa da herriko liburutegiak zenbat bazkide dituen zenbatzea eta ia 900 dira, horietatik 330 haurrak dira eta 8 elkarte ere badaude.

Hilaren 2an, umeen Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen eta 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Bi datak kontuan hartuta, hainbat ekintza egin izan dituzte liburutegian, eta aurten ere egingo dituzte.

UME ETA GAZTETXO UGARI

Apiril inguruan Haur Hezkuntzako ume ugari pasatzen da Aretxabaletako liburutegitik. Joseba López de Armentia liburutegiko arduradunak liburutegia erakutsi nahi izaten die, ipuintxoren bat kontatu eta liburutegiko bazkide izateko zer egin behar den jakinarazten dien eskutitza ematen die etxera eroateko.

Ekintza horiez gain, ohiko egunetan ere beteta egoten da; neguan, batez ere. Zortzi urte



MIRARI ALTUBE

Gaztetxoei nola erabili liburutegia erakusten die liburutegiko arduradunak.

arteko umeek ipuinak irakurtzera dituzte. Horretarako, Umeen Txokoa deritzona jarri zieten; bete-beteta egoten da. Zortzi urte-

tik gorako gaztetxoei, berriz, etxeko-lanak egiten dituzte. "Sarrri, txiki geratzen da beheko solairua eta gora bidali behar izaten

dituzte gaztetxo batzuk", dio Josebak, liburutegiko arduradunak.

LIBURUAK MAILEGUAN

Nagusi gutxi egoten da liburutegian, umei laguntzen ez bada, behintzat, baina liburuak maileguan hartzera gero eta gehiago etortzen dira. Gaztetxoei aurreko urteetan baino liburu gutxiago hartu zituzten iaz maileguan; nagusiek, oster, gehiago. Izan ere, urtero 1.000 liburu berri ekartzen dituzte: "Herritarrek liburutegian liburu onak ditugula konturatzen ari dira eta, hori dela eta, lehen baino sarriago etortzen dira" dio Josebak.

Liburuak maileguan hartzeko sistema informatizatu zenetik hona, gainera, hobeto moldatzen da Joseba. Ordenagailua ere bada erabiltzaile guztien zerbitzura, liburuaren gaineko kontsultak egiteko edo maileguan hartutako data aldatzeko. Hala ere, oso jende gutxi ausartzen da erabiltzera; gazteek gurago izaten dute jolaserako erabili, eta helduei beldurra ematen die.

Liburutegi kuriosoa daukagu herrian, gero eta osatuagoa, laster, oster, handiengoaren beharrean egongo gara.

LABUR

Loramendi EEk udaberriko ekintzen berri eman du

Loramendi Euskara Elkarteak udaberriko ekintzen berri ematen duen egitaraua kale-ratu du. Hainbat hitzaldi, kontzertu eta ikastaro izango dira, tartean Otxal-zelai Eguna eta Euskararen Eguna.


Aretxarte elkarteak beste kanpaina bat jarri du abian

Aretxarte Merkatarikari Elkarteak udaberriko kanpaina jarri du abian. Zozketa-zenbakiak oparitu dituzte dendetan, ekaina bitartean, eta ekainaren 4an, bederatzi erosteketa-xtartel banatuko dituzte.

Arrakasta handia izaten ari da panpina ikastaroa

Kultura Sailak antolatutako panpina ikastaroak izugarriko arrakasta izan du. Bi talde osatu dira eta guztira hogeita hamarren bat lagun dabilta ikastaroan.

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia
Basabe industrialdea, Pab D z/g
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista
Osteopatia kraneala: estrukturala eta funtzionala, lotura muskularrak
Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■ZAINDUZ OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:
banakako fitness programak, masajeak...
Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

■EGIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

PSIKOPEDAGOGOAK:

■LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua
Basabe industrialdea, C3-3.
Tel: 943 79 56 98

PARAFARMAZIAK:

■FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

YOGA:

■SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia
Lezama komertzial zentrua eta Santa Kurtz, 24. Tel: 61 965 795

ESKORATZA

FARMAZIA:

■BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia, formula magistralak
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

■ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

■AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

PILOTA

Alebinen mailako Eskualdeko Pilota Txapelketa jokatu da Iturrigorri

Hamaika eta hamabi urteko gazteek zapatu arratsaldeetan izango dituzte partiduak

MIRARI ALTUBE

Pilotariari ez zaiola geldi egotea komeni eta, Aretxabaletako pilotari gazteek gomen-dioari kasu egitea erabaki dute. Hainbat txapelketatan hartu dute parte, eta zapatuan, alebinen mailako Eskualdeko Pilota Txapelketa hasiko da Iturrigorri frontoian.

Eskualdeko pilotari alebinek zapatuan hitzordua, arratsaldeko lauretan, Aretxabaletako Iturrigorri frontoian. Hamai-ka eta hamabi urte bitarteko gaztetxo ugari batuko da datozen bost zapatueta frontoian.

TXAPELA, HURRENGORAKO

Txapelketetan murgilduta ibili dira herriko pilotariak azken hilabeteetan. Udaberri Torneoaz eta Debarroko Txapelketaz gain, Zaramagako Pilota Txapelketan ere izan dira. Hiruretan ibili dira ondo, finalerdietara ere heldu dira azken bietan, baina ezin izan dute txapelik eskuratu.

Errasti anaiek Debarroko finala jokatu zuten nagusien mailan, baina bergararrek jantzi



Zaramagako Txapelketako finala jokatu zuten bi bikoteak, Jose entrenatzailearekin.

zuten txapela. Aitor Uribarrenek eta Joseba Akizuk alebinen mailan eta Hodei Oionek eta Sergio Uriartek gazteen mailan Zaramagako Txapelketako finala jokatu zuten. Bi bikoteei eskuetatik ihes egin zien txapelak.

Txapelketetan aurrean ibil-

tzeko maila badutela erakutsi dute pilotari gazteek; beharbada, zortea falta izan zaie. Maila hori erakusteko aukera izango dute alebinek zapatuan hasiko den Eskualdeko Txapelketan eta nagusiagoek apirilaren 27an hasiko den Herri Arteko Txapelketan.

MENDIA

Murrukixo Mendi Elkartea hasi da antolatzen ekainean egingo den mendi ibilaldia

Orain dela urte bi egin zuten lehenengo aldiz mendi ibilaldia gure herrian. Murrukixo MEk antolatu zuen, hainbat talderen laguntzarekin, eta bi urtean behin egiteko konpromisoa hartu zuen. Hortaz, aurten egingo dute bigarren aldiz, ekainaren 9an, hain zuzen ere. Murrukixo hasi da dagoeneko antolatze lanetan, eta lehenengoan egin zuten ibilbide berbera egingo dute aurten.

FUTBOLA

Bigarren mailako erregionaleko taldea eta Gazteen Euskal Ligako larri ibiliko dira

UDAKo bigarren mailako erregionaleko taldea mailaz igotzeko ahal-eginetan dabil. Horretarako, hemendik eta liga bukatu bitartean gelditzen zaizkion partidu guztiak irabazi beharko ditu, talde asko daude eta puntu bertsuekin. Gazteen Euskal Ligako taldeak ere partidu guztiak irabazi beharko ditu, baina kasu horretan, ez-ialaz ez jaisteko. Biek ere lana izango dute hurrengo partiduetan.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

UDA-Bergara
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA-Ostadar
Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Lasagabaster/Alzola
Gazteak.
Domeka. Urretxu.
Uriarte/Oion
Gazteak.
Zapatua. 16:00. Añorga.

EMAITZAK

FUTBOLA

Hondarribia 0 UDA 0
Preferentea.
UDA 1 Lengokoak 1
Gazteen Euskal Liga.
Ordizia 2 UDA 1
Bigarren mailako Erregionala.
Urki 2 UDA 1
Bigarren mailako gazteak.
UDA 1 Urola 1
Lehenengo mailako kadeteak.
Lazkao 5 UDA 0
UDA 4 Antzuola 0
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Urretxuko Eskuz Banakako Pilota Txapelketa
Altube 22 Andera 11
Kortabarria 17 Aimar 22
Uriarte 22 Daniel 18
Gazteak.

- Aitzorrotz** elektronikak
- Alboka** gazte moda
- Angelines** autozerbitzua
- Aretxabaleta** iturgintza
- Asensio** jantzi denda
- Begiondo** optika
- Errasti** kioskoa
- Errekabarren** fruta denda
- Etxabe** harategia
- Farma bizi** parafarmazia
- Gemes** edertze aretoa
- Gertu** janari prestatuak
- Haurrak** umeen moda
- Herrasti** akeita etxea
- Ibarra** estankoa
- Iber** loteria
- Imanol** janari denda
- Iriarte** umeen denda
- Irudi** ileapaindegia
- Jauregi** okindegia
- Jon** harategia
- Josu** harategia
- L-10** ileapaindegia
- Larrad** ileapaindegia
- Lasai** masajeak
- Leibar** arraindegia
- Leintz** drogeria
- Leniz** liburudenda
- Mari Karmen** oinetakoak
- Maritxu** mertzaria
- Martin** erlojudenda
- Miren Zuriñe** bitxitegia
- Nerian** loradenda
- Txilarra** dietetika
- Xume** oihal denda
- Zaindus** osasuna/fitnessa
- Zare** artegintza
- Zubia** oinetakoak



UDABERRIKO ZOZKETA!

150 EUROKO SARI BAT ETA 60KO ZORTZI SARI!

Aretxartek bedetatzu erosketak txartel zozketatuko ditu gurean erosketak egiten dituztenen artean.
Zozketa ekainaren 4an egingo dugu! Hartu parte!



MUNDUTARRAK ARETXABALETAN

TERENCE MARTIN

IDAZLEA ETA EKONOMISTA / NEW YORK

“Aretxabaletara iritsi nintzenean, munduko mugan nengoela uste nuen”

AMAGOIA LASAGABASTER

New York-eko Dorre Bikiak jausi zirenean, kilometro bakar batera zegoen Terence Martin. Manhattangoa da Terence, eta orain dela hila-bete batzuk etorri zen Aretxabaletara, kooperatibismoaren gaineko liburu bat idaztera, hain justu ere.

Gizon lasaia da Terence. Berba egiteko moduan, nabaria da New York-eko bizimodu bizkorra azkar utzi duela albo batera: “Jendeak uste du New York-eko hiritar guztiok Sagar handiaren erdian bizi garela, estresatuta. Ni, ordea, Manhattanen bizi arren, Aretxabaleta moduko herri txiki bateko kide naiz. Nire komunitatea ez da herri hau baino handiagoa”. Hala ere, onartu beharra daukat bizilaguna mexikarra, dendaria pakistandarra eta meza esaten duena afroamerikarra dela; hemen ez daukagu horrelako kultura aberastasunik. “Hona etorri eta denbora batera, kostata, lehenengo pertsona beltza ikustean, etxean sentitu nintzen lehen aldiz!”

Desberdintasun guztien gai-

netik, Terence azkar asko ohi-tu da Aretxabaletara. Edoze-lan ere, gure herrira heldu zeneko lehenengo inpresioa ez du sekula ahaztuko: “Gaueko bederatziak ziren eta telefono-

“Hona etorri eta, kostata, lehenengo pertsona beltza ikustean, etxean sentitu nintzen!”

kabina baten nengoan; orduan, munduaren mugan nengoela pentsatu nuen. Euria egiten zuen eta guztia iluntasunean eta isil-isilik zegoen; benetan galduta sentitu nintzen”. Ez da harriztekoa; izan ere, Terenceren esanetan, Manhattan, gauz ere, argizatuta dago.

Terence harritu duen beste gauza bat hemengo bizimodu soziala da: “Familia oso batuta dago, oso lotura handiak dituzue hurreko jendearekin. New York-en, aldiz, bakarrik bizi eta hiltzen bazara, inor ez da enteratuko, baldin-eta hitzorduren bat ez badaukazu bateren batekin”.



HURRETIK



Odilo Vázquez

Karate irakasle

1982. urtien hasi zan Odilo karatie egitten. Orduetik hona, poliki-poliki, gora egin dau kirol horretan. Oin, 3. mailako gerriko baltza dauko, eta ikasleek sensei deiketan dutze.

Zela hasi zitzen karatie egitten?

Egixe esan, nahiko berandu ekin nitzen, 18 urtekin. Orduen, karateko pelikula modan euzen, eta esan geinke horrean influentziaz ekin nitzela.

Ze koloretako gerrikue dauketzu?

Fan dan urtie ezkerro, 3. DAN mailako gerriko baltza dauket. Logroñon jokatutako txapelketa baten lortu nuen.

Karatien, ikasle ala irakasle hobia zara?

Irakasle moduen, batzuetan gogorra izeten naz, baiñe jeneralien, ona izeten ahaleginketan naz. Ikasle moduen, barriz, nere sensei-ari edo irakasliari arazorik ez sortuten ahaleginketan naz.

Karatie egitteko, disziplinie biherrezkue da?

Ez. Beste kiroletan moduen, serixotasune eta jarraikortasune biher izeten da.

Bruce Lee ospetsuaren pelikula gustetan jatzu?

Bai, zela ez! Onena izen da, eta onena da ondiokan be. Bruce Leek garai bateko pelikuletan ostikuek poliki emun biher izeten zittuen; bestela, kamariek ezin izeten euen grabau.

Beste kiroliek egitten dozu?

Bai. Pelota, korrika egittie, igerilekuen ibiltie... Kirol asko egitten dittut.

Telebisiñuen ze ikusten dozu?

Teleberri-xek eta Felix Linaresen programie gustetan jat.

Janari gustoko bat?

Sagardotegixetako menue.

Amets bat?

Batez be, egunen baten Aretxabaletako Karate Kluba sorketie.

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Nagore Olabe

Dominikar Errepublika / 2001eko maiatza eta ekaina

Aurrez antolatutako eztei-bidaian joan zen Nagore Olabe Errepublika Dominikarrera. Aste bi egin zituzten Nagorek eta senarrak Punta Cana eskualdean. Nagoreren esanetan, aste bi horietan errealitate guztiz desberdina ikusteko aukera izan zuten. Izan ere, lehenengo astean hondartza eta inguruko paraje zoragarriak ikusi zituzten, baina egiazko Punta Cana bigarren astean bizi ahal izan zuten: “Lehenengo zazpi egunak hara eta hona ibili ginen, turismoa egiteko erakargarrienak ziren lekuak ikusten. Baina bigarren astean, Dominikar Errepublikako lagun batzuen laguntzarekin, euren benetako herrialdea ikusteko aukera izan genuen”.

Lehenengo egunetan inguruko parajeak ikusi zituzten. “Autobusean ibili ginen, eta parke natural eta hondartza galduak ikusi genituen. Katamaran baten, berriz, inguruko uharte xarmagarrietan zehar ibili ginen”. Punta Canako berde koloreko itsasoa oso miretsia ei da, eta Nagorek urpekaritza egiteko aprobetxatu zuen: “Itsasoaren kanpoaldea polita da, baina urpean aurki daitekeenarekin ez dauka alderik”.

Nagoreri, bidaiaren bigarren astea gehiago gustatu zitzaion; orduan, hango bizilagunen konpainian, benetako herrixka eta jendea ezagutu zituen. “Lagunak egin genituen, eta haiek, euren herrixkak, kultura, festak... ezagutu genituen”. Jendea oso alaia eta atsegina dela dio Nagorek. Hala ere, gizarte askotan moduan, han ere agintzen duena gizonezkoa dela azaldu digu. “Festa baten gitarra jotzen hasi nintzen eta hangoak zeharo harriturik utzi nituen; han gitarra jotzen gizonek bakarrik dakite”.

Nagore oraindik harremanetan dago Punta Canako lagunekin, eta noizbait hara bueltatuko dela badaki.



“Katamaran baten, inguruko uharteetan egon ginen”

“Han gitarra jotzen gizonezkoek bakarrik dakite”

A.L.



Punta Canan turistendako hondartza pribatuak daude.

Arotz lanetan behar duzun guztia




AZKARATE AROZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



LURRINDEGIA OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a / 76. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarrigoiena.com

Eskoriatzako lau lagun Taizén izan dira beste milaka lagunekin batera

AINTZANE GARDOKI

4.500 lagun elkartu dira Frantziako Taizé herrian Aste Santu ostean. Gipuzkoatik, asko ez badira ere, 9 lagun joan dira Taizéra. Horietatik lau, eskoriatzarrak izan dira. Esperientziak elkartrukatu, eta Euskal Herriko berri emateko aukera izan dute Frantzian.

Pazko astelehen goizean Eskoriatzako lau lagunek autoa hartu, eta Gipuzkoan barrena beste bost lagun batu ondoren, Frantziako Taizé bidea hartu zuten. Lyonetik 50 kilometrora dago Taizé. "Han Elkarte Eku-meniko bat dago, kristauen batasuna helburu duen elkarte da. Kristau katolikoez gain, era guztietako kristauak batzen dira bertan." azaldu digu Xabier Gómez Eskoriatzako Parrokoak.

GAZTEAK PROTAGONISTA NAGUSI

Taizéko elkarteak Roger anaiak sortu zuen 1940an. Aipatu legez, garai hartan bizi zen gerra egoerak bultzatuta, kristauen arteko anaitasuna eta elkar lana lortzeko, Taizéko herrian kokatu zen eta lanean hasi zen. Geroztik, aste beteko egonaldiak egiten dituzten milaka eta milaka dira hara joaten diren gazteak batez ere. "Fedearen iturrietan sakontzea dute helburu. Gazteak izaten dira protagonista nagusi Taizén, baina adin guztietako lagunak ere aurki daitezke han" argitu du Gómezek. "Gipuzkoatik joanda-



Eskoriatzako lau lagunek esperientzi aberasgarria bizi zuten Taizén

ko 9 laguneren artean, bat ezik, 35 urtetik beherakoak izan gara". Mundu osotik joandako gazteak biltzen dira Frantziako herri txikian. Europa osoko gazteak, eta Mexikotik Zairerainokoak, Japoniatik Indiarainokoak, eta Haititik Hego Afrikarainokoak. "Gu izan garen astean 4.500 lagun bildu gara. Mundu osotik etorritakoak, baina Alemaniatik etorritako talde izugarri handia zegoen, 2500 pertsonakoa" adierazi digu parrokoak.

Eskoriatzarrak ere aste osoa eman zuten Taizén. Herri xumea eta oso polita bezala deskribatu digute herria. Bertan bizitako esperientzia ere oso aberasgarria izan dela gaineratu digute, gainera. "Denbora izan dugu. Denbora guretako, gure buruarekin topo egiteko eta egunerokotasuna sakontasun handiagoaz bizi-tzeko" esan digu Xabier Gómezek. "Pozik, oso pozik itzuli gara guztiok. Indarberrituta! 4.500 lagunek, hizkuntza desberdinetan

abestu eta elkarrekin otoitz egiten genuen egunean hirutan. Otoitzaz gain, beste ekintza batzuk ere izaten genituen; tailerrak, bibliari buruzko hausnarketak, topaketak, bai estatuko eta baita kontinente arteko lagunekin... Euskal Herriko berri ere eman dugu jakitera eta trikitixaren soinuak ere entzun ziren Taizén. Oso pozik itzuli gara. Triste samar agian, espero genuen baino jende gutxiago joan garelako, baina izango da aukerarik" gehitu du Gómezek.

"Fedearen iturrietan sakontzea dute helburu. Gazteak izaten dira protagonista"

"Gu izan garen astean 4.500 lagun bildu gara. Mundu osotik etorritakoak"

"Euskal Herriko berri ere eman dugu jakitera, eta trikitixaren soinuak entzun ziren Taizén"

"Triste samar agian, espero genuen baino jende gutxiago joan garelako, baina izango da aukera"

OTZETA TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

MARI TERE

ILEAPAINDEGIA

Dorleta auzoa,
15. poligonoa, 6-ezk.
ESKORIATZA
943 71 40 19

AZKOAGA ESTANKOA

Zure
Zerbitzura



MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Liburuaren nazioarteko eguna aitzakia, HUHEZIn IV. Literatur Astea izango dute, eta Herri Liburutegian ere hainbat ekintza egingo dituzte.

GAZTE KANTOI ZABALIK

Gogoratu 13tik 16 urtera bitarteko gazte guztiok ondo pasatzeko aukera ezin hobea duzuela zapatu eta domeka arratsaldetan Gaztekantoin.



Javier Madrazo Eskoriatzan

Ezker Batuak antolatuta, etxebizitzaren politikari buruzko hitzaldia egin da astean herrian. Hiru Javier izan ziren mahaian; Madrazo, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburua, Dean, sailburuordea, eta Zugazti, Eskoriatzako etxebizitza zinegotzia.

Herritar ugari bildu ziren hitzaldia entzuteko Kultur Etxean. Madrazok, Ezker Batua, herritar guztiak etxebizitza duina izateko ahalegina egiten ari dela azpimarratu zuen. Berak emandako datuen arabera, etxebizitza bat izateko, 77.000 eskaera daude eginak Euskal Autonomi Erkidegoan, eta Etxebidek, 4.000 etxebizitza eskaintzen ditu soilik.

Madrazok esan zuen las-ter 16 etxebizitza sozial egingo direla Eskoriatzan, 14 Aretxabaletan eta 308 Arrasaten.

LABUR

Kaputxadun bik su eman zioten asteburuan Banco Santander Central Hispano bankuari

Asteburuan, kaputxadun bik su eman zioten Santa Ana auzoan dagoen Banco Santander Central Hispanoren egoitzari. Goizaldeko ordu bjetan, kaputxadun bi BCHSren lokalera hurreratu ziren. Dirudienez, erregaia isuri, eta su eman zioten gero. Barruko bulegoek ez

zuten kalterik izan; bai, ordea, kanpoko kutxazain automatikoak. Lekuko batek azaldu digu suhiltzaileak eta dirua jasotzen duen auto blindatua agertu aurretik sua itzalita zegoela dagoeneko. Inguruko bizilagun gehienek hurrengo egunean jakin ei zuten gertatukoa.

HUHEZIK antolatu duen IV. Literatura Asteak umorea aztertuko du

Apirilaren 22an hasi eta 26 arte luzatuko da, gaur, HUHEZIn aurkeztu duten Literatur Astea. Egun horietan umorea landu duten idazleak eta marrazkigileak izango dira Eskoriatzan. Literatur Asteak helburu asko baditu ere, nagusienak; idazlearen eta gizartearen arteko loturak sen-

dotzea, idazleak hobeto ezagutzea eta gizarteak gehiago irakurtzea lirarteke. Jon Alonso, Arantxa Iturbe, Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta, besteak beste izango dira datorren astean gurean. Aurten, Udalaren eta inguruko enpresa batzuen diru laguntza jaso du Literatura Asteak.



Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

Iturria: "DIARIO DEL MOTOR" aldizkaria

DIARIO DEL MOTOR


NOTICIAS • MERCADO • INDUSTRIA • ENTREVISTAS • NOVEDADES • CIFRAS



FORD FOCUS, FIDAGARRITASUNEAN AURRENA

Alemanian, Ford Focus autoa liderra da kalitatean eta fidagarritasunean. Honixe dio automobilaren industriaren kontrol ikuskapena eta gainbegiratzeko teknikoa egiten dituen TÜV erakundearen urteko txostenak. Era berean, txosten horrek dio Ford Focus autoak presentzia geroago eta handiagoa duela Europako errepideetan eta gerago eta presentzia txikiagoa tailerretan. Hainbat frogak egin eta gero, emaitza izan da Ford Focus autoak ehuneko bateko akats portzentajea besterik ez duela; azken hamar urteotan TÜV erakundeak erregistratu duen

portzentajerik txikiena. TÜV txostena erabilitako autoen inguruko informazio gida bat da. Txosten horrek autoak sailkatzen ditu "akats txiki" eta "akats nagusi" arabera. Nahiz eta Japoniarrak oraindik ere talde nagusia izan "akats txiki"-etan, aurtun, Ford Focus autoarekin, Alemaniako fabrikatzaile batek lehen postua lortu du urte bat eta hiru urteko antzinatasuna duten autoen artean. Ondorengo antzinatasun taldeetan Toyota du lidertza. Eta Mercedes SL da lehena 8 eta 9 eta 10 eta 11 urte bitarteko antzinatasuna duten taldeetan.



Araba etorbidea • ARRASATE • 943 79 07 44

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

Santa Ana
GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36



Lehenengo jaiotza

Ibon Lorenzo Milan izan da aurten Gatzagan jaio den lehenengo umea. Martxoaren 22an jaio zen, Arrasateko ospitalean. "Puntual-puntual, medikuek agindu bezala, etorri zen mundura", azaldu digu amak, Ana Milanek. 3.600 kilo pisatu zuen Ibonek.

"Sumatzen da bigarrena dela", dio amak, "beste patxada batekin hartzen da eta umea". Anak ésan digu orain umea zaintzen eta herria zaintzen ematen duela eguna. Azkenengo lau urteotan 16 ume jaio dira Gatzagan.

HERRITARRENHITZA/ Edorta Arana • EHUKo irakaslea

Agin tarteak

Gurea ei da, Gipuzkoako herrien artetik, Erdi Aroko itxura ondoen gordetzen duena. Egin dituzten etxebizitza berriak eta jausi edo bota dituzten zaharrek ere herriaren planoan utzia daukate egon izanaren arrastua (www.gipuzkoa.net).

Etxetik irtenda gabiltzala eta, beste hutsune bi ageri dira Gatzagan, garbi-garbi. Lehena, gazteen eta edadekoen arteko harremanarena, eta bestea, hizkuntzarena.

Jaiak direla, auzolana dela edo beste edozein ekitaldi sozial tarteko, edadekoak eta oso gazteak dira saltsan ikusten

dituzunak. Badirudi adin multzo bi besterik ez dagoela herri honetan. Ez da jakin, ez dute gura edo ez da suertatu izan adin desberdinetakoak elkarrekin harremanetan jarriko dituenik egotea. Familia barruko harremanaz gain, kalean ez da bestelako tratuerik ikusten. Aldi berean, euskararen erabilerak, desagertutako etxeek uzten duten lur sailean legez, helduen eta umetxoen arteko tarte



"Gurea da katea apurtu izanaren erantzukizuna"

hutsak erakusten ditu. Euskaraz berba egiten jakin badakite, baina ez dute erabiltzen, samurragoa zaie gazteleraz aritzea. Eta kasu honetan, amigo, errua gurea dela uste dut. Ez dugu euskara sozialki legitimatzen eta bere horretan transmititzen jakin izan.

Garrantzia daukaten gauzetan (diru kontuak, *lige*-ak, arazo sozialak...) gaztelerara jotzen dugu, euskarari sozialki duen

erabilgarritasuna ukatuz.

Gurea da katea apurtu izanaren erantzukizuna. Gazte jendeak ez du diskurtsorik behar, errealitateak baino. Eta gai honetan kale egin dugu, orain arte, behintzat.

Espero dezagun hemendik aurrera, Erdi Aroko herrien egituraketa arkitektonikoa zelakoa zen jakin guran, bisitari asko izango ditugula. Otoitz egin dezagun etorkizunean ere, izan zirenen arrastoak ikustera datozenean etxeak, eraikinak eta kaleak ikusten etortzea Gatzagara, eta ez gazteriak eta euskarak utzi izandako tarte hutsak.

LABUR

Ludotekarako txanda berriak egin dituzte

GURELek batzarra egin zuen joan den barikuan, eta erabaki zuen ludotekara joateko txandak egitea. Azken hilabeteotan adin guztietako umeak nahastuta egon dira ludotekan, eta arazo batzuk tartean, umeak adinka banatzea erabaki zuen. Aurrerantz, hiru eta lau urtekoak, egunero, 17:00etatik 18:00etara joan ahal izango dira ludotekara, eta gainerakoak, 18:00etatik 19:00etara. Horrez gain, guraso guztiei eskutitz bana bidaliko die GURELek, seme-alabekin ludotekako arauak gogoratu eta aztertzeko.

Hiri antolamenduko arauak ikusgai

Gatzagako Udalak jendaurrea atera du Hirigune Historikoko Monumentu alorrari dagokion Hiri Antolamenduko Arauen aldaketa puntualaren aurrerapena.

Hori erabaki zuen udalbatzak martxoaren 21ean egindako osoko bilkuran. Martxoaren 26an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 30 egunez, hau da, maiatzaren 6a arte, jendaurrean izango da espedientea. Tarte horretan, herritarrak iradokizunak egin ahal izango ditu udaltxean bertan. Orain arte, ez dute iradokizunik egin.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak


Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

Jon Díaz



Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Maritxu


drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



MONDRAGON
AUTOMOCION

AUTOENDAKO OSAGAIAK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00

COMPOSTELA Taberna

Olagarro
espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

ESKORIATZA **Bazkariak eta afariak**
ERRETEGIA
Mendiola auzoa
ESKORATZA
943 71 43 45
Astelehenetan itxita

Tfno 714345



MENDIOLA

JOSU
taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



LAGUNAK
DASTALEKU
TEL. 943714063

Gustora egoteko!
Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA



Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

URBALTZ
TABERNA

URBALTZ taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA



ZARAIA
TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Baster-Alde jatetxea

Sasoiko jakiak giro onenean

Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58



ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

GUREA
Eguneko menuak • Plater konbinatuak
TABERNA
Durana kalea. Telefonoa 943 79 20 64

TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34



EZKUTU
TABERNA
Zatoz gure musikaz goatzera
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01



OTZETA
taberna jatetxea



Aranburuzabala 7
ESKORIATZA. 943 71 51 90

BASABE
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

AZKENA taberna
Solohaundi 8 Aretxabaleta. 943 79 74 57



osasun eta fitness zentrua
JAR ZAITEZ SASOIAN UDA HONETARAKO
Apirilean (hiruhilabeteko kuota eskeintza berezia)

Azterketa Fisiko - Medikuak
Ordutegi zabala (8:00tik 21:30era)
Urteko Kuotarik gabe
Sauna dohain
Fisioterapia / masaje zerbitzu integrala
Solarium bertikala



FITNESS ZERBITZUA

- > Kalitate goreneko materialea (Bihotz taupada kontrolerako Sistemarekin / CPR)
- > Monitore kualifikatuak
- > Banakako programak

TALDEKO SESIOAK

- > Aerobik / Step
- > Aerogim
- > Aerofit / Power Dumbell
- > Aerobik Gazte / Aerobik Txiki
- > Senior Gimnasia
- > Mantentze Gimnasia

TALDE BEREZIAK

- > Gimnasia Terapeutikoa
- > Tai-Chi
- > Yoga (*Berrria*)



Zainduz

Ilargi Plaza, 6 behea

Tel. 943 71 27 92

20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)

e-mail: zainduz@euskalnet.net